



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko maiatzaren 20a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlana buka dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregelamendu bidez gara dezan Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain dezan Oinarrizko Errenta. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Urrobi industrialdea handitu eta Nasuinsaren bidez kudea dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Pirinioen 2007-2009 Planean hartutako konpromisoak bete ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Lan eta Immigrazio Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioak pertsegitu beharrekoak direla. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da anonimotasuna ziurta dezan funtzio publikoan sartzeko oposizioen edo Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileak hautatzeko deialdi guztietan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da medikamentuak neurrian eta gaixoaren beharrezan araberan ematen direla ahalbidetzeko formulak bila ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejónen eta gisako egoeran dauden udaltan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza finka dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (8. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Baztanen azaroaren 14an izandako baso-suteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

- Galdera, Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Planaren gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, txerri-aziendaren ustategietan minda tratatzeko sistemei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Sunbillan azaroaren 25ean izandako baso-suteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakinari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Altsasuko Mufabrik enpresaren datuak prentsan azaldu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kide izateko proposatu behar dituen lau pertsonak hautatzeko arauak. Akats zuzenketa (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlana buka dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlana buka dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlana buka dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun eta Politika Sozialeko Ministerioa premiatzen du azterlan bat burutu dezan, zeinean zehaztuko baita Espai-

nian gor-itsutasuna duten pertsonen kopurua, bai eta haien baldintzak eta kokaleku geografikoa ere, kasua bada eratu beharko diren erreferentzia-zentroak zehazte aldera, bai eta kolektibo horren beharrian bereziei egokituagoak diren baliabideak ipintze aldera ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Ministerioa premiatzen du ofizialki arautu dezan gor-itsuen bitartekarien lanbide-kualifikazioa, Kualifikazioen Institutu Nazionalari eskaturikoaren ildotik.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun eta Politika Sozialeko Ministerioa premiatzen du "laguntzaile pertsonal edo bitartekari" baten laguntzarako baremoak berrikus ditzan, Mendekotasun Legearen mugapean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren bitarteko guztiak gara eta inplementa ditzan, berdintasun-oinarri batetik estaldura emateko gor-itsuen kolektiboari, berriki onetsitako Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko Foru Legea eta aplikatzekoak diren xedapen eta arau guztiak aplikatuz eta garatuz.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregelamendu bidez gara dezan Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamendu bidez gara dezan Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregelamendu bidez gara dezan Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko 14/2008 Foru Legean jasotako aurreikuspenak erregelamendu bidez gartztea. Honakoak dira:

a) Gehieneko epea 120 egunekoa duten prozedura kirurgikoak.

b) Kanpo-kontsultetako prozedurak eta espezialitateak. Proba diagnostikoak.

c) Bermea sortu edo eteteko arrazoi justifikatua dagoeneko egoera pertsonalak.

d) Itxaronzerrendetako gaixoen erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua.

e) O-NOZen itxaronzerrendetako gaixoen erregistroa funtzionamenduan jartzea.

2. Erregelamendu bidezko garapen horretan jasotzea gaixoen lehenetsuna ezartzeko antolabideak, kontuan hartuko dutenak ez soilik itxaronaldia, baizik eta, halaber, gaixoaren premia, eritasunaren larriaren arabera, espero izatekoa den onura, eta sintomen edo eguneroko bizitzan jasaten dituzten mugapenen edo muntadun izan litezkeen bestelako baldintzapen sozialen zenbatekoa.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain dezan Oinarrizko Errenta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain dezan Oinarrizko Errenta."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain dezan Oinarrizko Errenta

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legeak ezartzen duen epean modu zuzen eta eraginkorrean ordain ditzan "Oinarrizko Errenta" deituriko aldizkako laguntza ekonomikoak.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Urrobi industrialdea handitu eta Nasuinsaren bidez kudea dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Urrobi industrialdea handitu eta Nasuinsaren bidez kudea dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Urrobi industrialdea handitu eta Nasuinsaren bidez kudea dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskualde-mailakotzat jo ditzan Aezkoa-Erro eta Auritz zonako Urrobi deituriko industrialdea eta berorren handitzea, eta Nafarroako Gobernuak Nasuinsaren bitartez sustatua izatera pasa daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du presaz jardun dezan Urrobiko industrialdearen handitzea eta urbanizazioa gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketetan.

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Pirinioen 2007-2009 Planean hartutako konpromisoak bete ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Pirinioen 2007-2009 Planean hartutako konpromisoak bete ditzan” Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2010eko apirilaren 16ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Pirinioen 2007-2009 Planean hartutako konpromisoak bete ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen egin ditzan, aurrekontuetako aurreikuspenekin eta aukerekin bat, bai Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoren barruan onetsitako jarduketak, bai eta eremu hori ekonomikoki eta sozialki dinamizatzeko balioko duten proiektu enblematikoak ere –horietako batzuk Nafarroa Plana 2012 deiturikoaren bidez daude finantzatuta–, baliagarriak izanen baitira Pirinioetako toki entitateek detektatutako beharrei erantzuteko.

Erabakia. Horren bidez, Lan eta Immigrazio Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlan bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Lan eta Immigrazio Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlan bat egin dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Lan eta Immigrazio Ministerioa premiatzen da gor-itsuen kopurua ezartzeko azterlan bat egin dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun eta Politika Sozialeko Ministerioa premiatzen du azterlan bat egin dezan, zeinean zehaztuko baita gor-itsutasuna duten pertsonen kopurua, bai eta haien bizi-baldintzak eta kokaleku geografikoa ere, eratu beharko diren erreferentzia-zentroak zehazte aldera, bai eta kolektibo horren beharrian bereziei egokituagoak diren baliabideak ipintze aldera ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Ministerioa premiatzen du ofizialki arautu dezan gor-itsuen bitartekarien lanbide-kualifikazioa, Kualifikazioen Institutu Nazionalari eskaturikoaren ildotik.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioak pertsegitu beharrekoak direla.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioak pertsegitu beharrekoak direla." Horren jatorria da Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozio bat, 2010eko apirilaren 16ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioak pertsegitu beharrekoak direla

1. Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du indarrean dugin ordenamendu juridikoak modu aski garbian eta zalantzagabea behartzen duela gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioak pertsegitzera. Legedi horren aplikazioa eta interpretazioa epaileei eta auzitegiei dagokie.

2. Nafarroako Parlamentuak administrazio publiko eskudunak premiatzen ditu, eta bereziki Nafarroako Gobernuak modu subsidiarioan, ziurta dezaten bere gain hartuko dutela frankismoak Nafarroan eragindako biktimak hobiratuta dauden lekuak zehazteko, gorpuak lurpetik ateratzeko eta identifikatzeko lanen ardura publikoa eta instituzionala.

3. Erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko buruari helaraztea.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da anonimotasuna ziurta dezan funtzio publikoan sartzeko oposizioen edo Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileak hautatzeko deialdi guztietan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da anonimotasuna ziurta dezan funtzio publikoan sartzeko oposizioen edo Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileak hautatzeko deialdi guztietan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da anonimotasuna ziurta dezan funtzio publikoan sartzeko oposizioen edo Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileak hautatzeko deialdi guztietan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan:

a) Funtzio publikoan sartzeko edo Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileak hautatzeko oposizio-deialdi guztietan berma dadila oposizioko partaideen anonimotasuna eta ebaluazioaren objektibotasuna, eta pliken erabilera ezinbestekoa izatea ariketa guztietan, salbuespen bakarra izanik proben ezaugarriak berak sistema horrekin bateraezinak direneko kasuak (proba fisikoak, psikoteknikoak, elkarrizketak).

b) Langileak hautatzeko prozedurak arautzen dituzten erregelamendu-arauak alda daitezela, derrigorrezkotasun hori bera arau orokor gisa ezartze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da medikamentuak neurrian eta gaixoaren beharrezkoen arabera ematen direla ahalbidetzeko formulak bila ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da medikamentuak neurrian eta gaixoaren beharrezkoen arabera ematen direla ahalbidetzeko formulak bila ditzan". Horren jatorria da Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako mozio bat, 2010eko apirilaren 23ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da medikamentuak neurrian eta gaixoaren beharrezkoen arabera ematen direla ahalbidetzeko formulak bila ditzan

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du medikamentuak neurrian eta gaixoaren beharrezkoen arabera eman ahal izateko beharrezkoa den guztia xeda dezan, autonomia erkidegoekin elkarlanean.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejónen eta gisako egoeran dauden udaletan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza finka dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2010eko maiatzaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejónen eta gisako egoeran dauden udaletan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza finka dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejónen eta gisako egoeran dauden udaletan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza finka dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Castejónen eta antzeko egoeran dauden gainerako udalerrietan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa indar dezan.

Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa behar den kalitatearekin Castejónen irakasteko beharrezkoak diren ikasgelak eraiki ditzan edo eraikin publiko batean egokitu ditzan.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Baztanen azaroaren 14an izandako baso-suteari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Baztanen azaroaren 14an izandako baso-suteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Baztanen azaroaren 14an izandako baso-suteari buruz (PES-317). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2009ko azaroaren 14ko suteak kaltetu zuen parajea, Zapitor izenekoa (Orabidea aldean, Baztanen), oteak (*Ulex gallii*) estalita dago goiko aldetik eta norteko haritzak (*Quercus rubra*) beheko aldetik.

Alde batetik suteak gehien kaltetutako landareak otea izan da, baina hark ingurumen-balio txikia dauka eta lehengoratzeko ahalmen handia.

Norte haritzei dagokienez, zuhaitz helduak direnez eta sua azalekoa izan denez, kalteak oso txikiak izan dira, eta basoaren iraupena segurutzat jo daiteke.

Lehenengo puntuko argudio berak erabiliz, jotzen dugu sutearen eragin ekologikoa oso txikia izan dela, eta arin gaindituko dela.

Basozainek suteari buruz eginiko txostena erantsi dugu, bai eta sutearen perimetroari buruzko planimetria, GPS nabigatzaile batekin egina. Horren arabera, suteak 4,17 ha kaltetu zituen.

Sutearen arrazoiei dagokienez, Foruzaingoak prebentzio-eginbideak zabaldu ditu, zeren eta ez baita sutearen egilea ezagutzen.

Basozainen iritziz, sutea nahita eragin da, eta jotzen dute haren arrazoia sasiak garbitzeko nahia izan dela, dela larreak lortzeko, dela besterik gabe sasiak kentzeko. Praktika hori oso ohikoa da esku-aldean eta, zehazkiago, Baztanen.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko abenduaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturria

Galdera, Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Planaren gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Planaren gainean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetarako Planari buruz (PES-318). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ezin dugu 2009ko ekitaldian betetako gastuari buruz eskatutako informazioa eman Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako epean, zeren eta 2009. ekitaldia oraindik ere itxi gabe baitago. 2009ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorak eta Balantze Kontuak itxi, likidatu eta 2010eko ekitaldian irekitzeko arauak onesten dituen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren azaroaren 25eko 197/2009 Foru Aginduaren bitartez 2009ko ekitaldia ixteko ezarritako arauen arabera, 2010eko urtarrilaren 29an kontabilizaturik egon behar dute, kontu-hartzailezaren adostasunarekin, kasua bada, 2009. urteari buruzko eragiketa guztiak. Izan ere, egun horretatik aurrera eskatutako informazio guztia igorri ahalko dugu.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, txerri-aziendaren ustiattegietan minda tratatzeko sistemei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du txerri-aziendaren ustiattegietan minda tratatzeko sistemei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María

Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du txerri-aziendaren ustiattegietan minda tratatzeko sistemei buruz (PES 321). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

ITG Ganadero enpresak ez du ingurumen baimen integraturik ematen. Ingurumen baimen integratuak Ingurumen eta Ur zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ematen dira, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuen abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuan ezarritako izapidea betez.

ITG Ganadero enpresak, bai eta espezializatutako beste ingeniari-tza enpresa batzuek ere, arautan exijitzen diren proiektu teknikoak eta dokumentuak idatzi dituzte, aipatutako foru dekretuko

2B eranskinean sarturiko granjek ingurumen baimen integratua lortu ahal dezaten. 2B eranskinean txerri-aziendaren eta hegaztien granja jakin batzuk baizik ez agertzea, Kontseiluaren irailaren 24ko 96/61/EE zuzentarauaren aplikaziotik heldu da. Izan ere, zuzentarau hori kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzkoa da, eta Espainiako antolamendu juridikoan Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen bitartez sartu zen.

Abeltzaintzako instalazioei berezkoak zaizkien ingurumen alderdien artean, gas kutsagarrien (amoniakoa, metanoa, nitrogeno oxidoak) atmosferarako emisioak eta sorturiko simaurren deuseztatzea dago.

Atmosferara igortzen diren gas kutsagarriak gutxitzeko, zenbait teknika badaude, abereak dauden eraikinetan, simaurrak biltzeko baltsetan edo simaurrak kudeatzeko sistemetan aplikatu beharrekoak.

Ustez, simaurren kudeaketa egokitzat jotzen da haiek nekazaritzarako erabiltzea, ongarrri mineralak eta bestelako gehigarriak ordeztu dituztelako. Izan ere, horixe da foru erkidegoko ustiategietan erabili ohi den kudeaketa modu orokorra.

Horretarako exijitzen da abeltzaintza ustiategi bakoitzean simaurren ekoizpenari eta kudeaketari buruzko plan bat egin dadin eta gaurkotuta eduki dadin. Halaber, eskatzen da simaurrak biltzeko behar adinako instalazioak edukitzea, hain zuzen ere modua egon dadin haiek garai jakin batzuetan lurretan barreiatzeko, bai eta barreiatze-lanetarako ekipoak ere, lursailetan egoki aplikatzeko.

Teknologia aurreratua duten ekipoak eta makinak nitrogeno dosi egokien banaketa lokalizatua, homogeneoa eta doitua egiten dutenak dira, nekazariak erabiltzen dituzten ongarritze-taldeen antzeko prestazioekin. Gainera, aplikatzeko baldintzek kiratsen emisioa ahal den guztian gutxitu behar dute aplikatzen direneko lursailen inguruetan. Helburu horrek berekin dakar, halaber, lurrean aprobetxatuko ez diren amoniako kopuru handiak lurrin daitezen saihestea.

Hori dela eta, departamentuak ingurumen baimen integratua edukitzeko betebeharra duten abeltzaintza instalazioei exijitzen die hodi zintzilikariak edo lurperatze-sistemak dituzten barreiatze-ekipoak erabil ditzaten.

Ez dugu ahaztu behar ingurumen baimen integratuetan emisioaren mugako balioak zehazteko orduan, eskuera dauden teknikarik onenak hartu beharko direla kontuan. Horretarako Ingurumen

eta Ur Zuzendaritza Nagusiak honako erreferentziako dokumentuetan jasotako informazioa erabiltzen duela: Eskorta Hegaztiak eta Txerriak Intentsiboki Hazteko Eskueran dauden Teknikarik Onenak (Batzordeak onetsitako BREFa), Ingurumen, Landagune eta Itsas Ingurueta Ministerioaren Eskuera dauden Teknikarik Onenen Gida eta adituek emaniko informazioa –besteak beste ITG Ganadero enpresa, abeltzaintzaren sektorea eza gutzen duen eta hari buruz Nafarroan aholkua ematen duen entitate gisa–, eta bisita batzuk egin dira Frantzia eta Alemania bezalako herrialdeetan erabiltzen diren teknikak ezagutzeko. Horrenbestez, jotzen da simaur likidoa hodi zintzilikarien arrapala baten bidez barreiatzea dela Eskueran dagoen Teknikarik Onena.

Simaurren hodi zintzilikarien bitartez barreiatzeko sistema aplikatu ahal da bai lehendik dauden abeltzaintza instalazioetan bai instalazio berrietan ere. Hodi zintzilikarien zisterna bera instalazio batean baino gehiagotan erabil daiteke, behar diren garbitasun eta desinfekzio neurriak hartuz gero. Simaurrak ekoitzi eta kudeatzeko plan bateratuak egiteko eta barreiatze makineria guztien artean erabiltzeko abeltzainen taldeak osatzeak txikiago egiten du abeltzainek ingurumen arloko arauetara egokitzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoa. Gaur egun, abeltzainen taldeen dozena erdi bat plan aurkeztu eta onetsi dira jada.

Laburbilduz, hodi zintzilikarien arrapalaren bidezko barreiatze sistemak honako abantaila teknikoak dauzka:

- Homogeneotasun handia barreiatzerakoan.
- Haizeak inolako eraginik ez izatea.
- Barreiatzearen kostu aldagarriak ontzi tradizionalekin izaten zirenen antzekoak dira.
- Ez da zaldi gehiagoko traktorerik behar ontzitan bererako.
- Amoniakoaren eta kiratsen emisioa asko gutxitzen da: abanikoa desagerrarazi eta minda banda paralelotan banatzen delako lurzorua gainean; horrek berekin ekartzen du simaur likidoa – airea ukipen-azalera gutxitzea.
- Gaur egun, sistema hori Nafarroan erabiltzen duten abeltzainen esperientziaren arabera, txerri-aziendaren simaur likidoarekin hodiak ia inoiz ere ez dira buxatzen, eta mantentzearen kostua txikia da.

Simaurren gordina, zuzenean edo sorotetan biltegi-ratu ondoren, nekazaritzarako erabiltzeaz gainera, simaurren ezaugarriak aldarazten dituzten eta haien egonkortzea eta homogeneizatzea eta kira-

tsen gutxitzea dakarten beste tratamendu batzuk ere badaude. Ohikoenen artean, honakoak daude:

Biogasa ekoiztea: Digestio anaerobiko bat da, metanoa sortzen duena. Metano hori edo zuzi batean erretzen da edo elektrizitatea sortzeko erabiltzen da. Prozesu horretan, amoniako kopuruari eusten zaio edo kopuru hori handitu ere egiten da digeritutako produktuan. Horrenbestez, atmosferarako emisioen arazoak bertan jarraitzen du barreatzeak irauten duen bitartean ere. Horrelako kasuetan, digestatza sistema lokalizatuen bitartez aplikatu behar da. Tratamenduaren kostuak elektrizitatea salduz ordaindu ahal dira, halakorik eginez gero.

Nitrifikazio – desnitrifikazio prozesua: Xede du digestio aerobikoa eta digestio anaerobikoa aldatzea, halako moduan non digeritutako produktu-

aren nitrogeno maila gutxituko den, eta, horrenbestez, aplikaziorako behar den azalera gutxitzen da. Araztegienaren antzeko sistema bat da. Araztegiek, izan ere, teknologia aurreratua eta mantentze kostu gutxi-asko handia izaten dute.

Prozedura horiek eskatzen dute ustiategi handietan ekonomikoki bideragarriak diren neurriak, edo simaurra nekazaritzarako erabiltzeko zailtasun handiak dauden egoeretan exijitzekoak direnak, behar bezain handia den lur-eremu batean aplikatzeko gaitasunik ez egoteagatik.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko abenduaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Sunbillan azaroaren 25ean izandako baso-suteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Sunbillan azaroaren 25ean izandako baso-suteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 18ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Sunbillan 2009ko azaroaren 25ean izandako suteari buruz (PES-323). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2009ko azaroaren 25ean, sute bat izan da Sunbillako Primoneko Borda parajeetan. Suteak 100 eta 300 metro bitarte berezita dauden hiru fokutan izan du eragina. Sua azalekoa da, eta belarren eta zuhaixken estratuan baizik ez du eragin. Esate

baterako, honakoak dira kaltetutako landareak: isatsa (*Cytisus scoparius*), laharra (*Rubus sp*) eta ezpela (*Buxus sempervirens*). Suteak, halaber, radiata pinu motako sail baten zati txiki batean izan du eragina; hamar urte inguruko pinuak ziren. Era berean, radiata pinuak eta bertako haritzak (*Quercus robur*) dauden zuhaitz eremu batean ere izan da sua, baina ez du kalterik eragin. Sutearen eragin ekologikoa oso txikia izan da, eta aldi baterakoa. Sutearen arrazoiei dagokienez, Foruzaingorak salaketa bat jarri du orbela erretzen ari zen pertsona baten aurka, itxura batean bera izan baitzen sua eragin zuena. (2. eranskina)

Suteari buruzko parte, ikuskaritzaren akta eta txosten bat erantsi ditugu, barrutiko basozainek eginak. Halaber, ukitutako esparruaren krokis bat ere gehitu dugu. (1. eranskina). Foruzaingorearen salaketa ere erantsi dugu. (2. eranskina)

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko abenduaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien eskura daude Agora aplikazioan.)

Galdera, aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakinari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakinari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du diruzaintzako gerakinaren egoerari buruz (PES-304). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Aurreko ekitaldietako diruzaintzako gerakinak, 2009ko abenduaren 14an erabilgarri dagoenak,

26.972.678,13 euro egiten du, behin atxikitako 27.746.440,8 euroko kopurua kenduta.

Urtetik urtera 2000tik sortutako diruzaintzako gerakinari dagokionez, zehaztu beharra dago parametro horrek islatzen duela ekitaldi bat ixteko garaian data horretara arte metaturiko finantzaketaren soberakinaren egoera; hau da, ez da urteroko parametro bat, baizik eta metaturiko kopuru bat. Halaber, zehaztu beharra dago parametro hori lehenbiziko aldiz Nafarroako 2006ko Kontu Orokorretan jaso zela; horrenbestez, ezin da horren aurretiko daturik eman.

Hurrengo taulan, eskatutako datuak jasotzen ditugu. Nafarroako Kontu Orokorretan kontsulta daitezke, Nafarroako Gobernuaren webgunean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 23an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Ekitaldia	Diruzaintzako gerakina, guztira	Diruzaintzako gerakina, atxikitakoa	Diruzaintzako gerakina. Gastu orokorrak
2006	374.569.225,60	Daturik ez	374.569.225,60
2007	331.902.231,64	18.741.838,30	313.160.393,34
2008	128.250.678,62	27.746.440,90	100.504.237,72

Galdera, Altsasuko Mufabrik enpresaren datuak prentsan azaldu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Altsasuko Mufabrik enpresaren datuak prentsan azaldu izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 27ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroa Abalaren kontzesio desberdinei buruz (PES-314). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren 2009ko otsailaren 16ko erabakiaren ondorioz lehenengo Nafarroa Abalaren onuraduna izan zen enpresaren izena Datuak Babesteari buruzko Legean ezarritakoa betez argitaratu egin zen, ezinbestez behar den moduan. Prentsa-ohar baten bidez argitaratu aurre-

tik, Nafarroako Gobernuak Mufabrik SL enpresako zuzendaritzari kontsultatu zion ea prest zegoen bere datuak argitara eman genitzan edo eskubide hori beretzat gorde nahi zuen. Enpresa horren zuzendaritzak interesa agertu zuenez bere datuak argitara eman genitzan, haren izena jasota azaldu zen Nafarroako Gobernuko Komunikazio Kabinetetik otsailaren 16an eman genuen informazioan.

Kontsulta bera egin zitzaizen Nafarroa Abalaren onuradun suertatu ziren gainerako enpresei ere, eta haien erabakia errespetatu izan da haien izenak Nafarroako Gobernuak argitaraturiko informazio publikoan jasotzeko garaian.

Nafarroako Gobernuak ez dio informazio hori ukatu Nafarroako Parlamentuari. Abalen onuradun suertatzen diren enpresen datuak ez dira publikoak; izan ere, Datuak Babesteari buruzko Legearen esparruan babesturiko informazioa da hori, eta enpresak dira, kasuan kasuan, beren eskubideaz baliatu direnak, betiere legeak ezarritako esparruaren barrenean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 23an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kide izateko proposatu behar dituen lau pertsonak hautatzeko arauak.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat atzeman da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2010eko maiatzaren 17an onetsitako erabakiaren testuan; hain zuzen ere, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kide izateko proposatu behar dituen lau pertsonak hautatzeko arauetan. Erabaki hori 2010eko maiatzaren 18ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hori horrela, hona akats zuzenketaren testua:

Ondokoa dioen tokian: "Eledunen Batzarrari entzun ondoren"

Honakoa behar du: "Eledunen Batzarrarekin bat"

Iruñean, 2010eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda
